

Promesa bat betetzeko ordua

Yolanda Larreategik eta Malen Amenabarrek 'Bi txantxangorri haritz adarrean' ondu dute
• 'Dumitru biluzik' eman du Koldo Izagirrek, baita Altzoko Handiaren bildumako bi lan ere

Ainhoa Sarasola Donostia

Baso bat. Promesa bat. Heriotza. Eta soseguzko begirada bat. Osagai horiekin ondu dute Yolanda Larreategik eta Malen Amenabarrek *Bi txantxangorri haritz adarrean* helduentzako album ilustratua. Peru Abarka lehiaketaren bultzadaz osatu dute liburua, eta Erein argitaletxearekin plazaratu. Egileek atzo azaldu zituzten albumaren nondik norakoak, Donostian, Inazio Mujika Iraola editorea lagun zutela. Ereinen udazkeneko beste hiru lan berri ere aurkeztu zituzten agerraldi berean. Izan ere, Koldo Izagirrek *Dumitru biluzik* gazteentzako nobela plazaratu du, baita Altzoko Handia eta Kutixi neskatoa protagonista dituen bildumako azken bi albumak ere, azken horiek Irrimarra rekin elkarlanean sortutakoak.



Ezker-eskuin, Malen Amenabar, Karmele Gorroño, Yolanda Larreategi eta Koldo Izagire, atzo, Donostian. JON URBE / FOKU

'BITXANTXANGORRI HARITZ ADARREAN'

Markina-Xemeingo Udalak eta Erein argitaletxeak urte hasieran egin zuten XIV. Peru Abarka Album Lehiaketan parte hartzeko deialdia. Yolanda Larreategik aurkeztutako narrazioa hautatu zuen epaimahaiak lehenik, eta hura ilustratzeko Malen Amenabarren proposamena ondoren. Lau eskutara osatu dute, beraz, *Bi txantxangorri haritz adarrean* helduentzako album ilustratua.

«Maitasun istorio bat da, promesa batetik sortzen dena», azaldu zuen Larreategik. Bikote bat da kontakizuneko protagonista. «Orain dela urte asko promesa bat egin zioten elkarri, eta konplizeko momentua ailegatu da. Momentu gogorra izango da, baina aurrera eraman beharrekoa, promesa bat promesa bat baita». Heriotza du ardatz narrazioak, baina heriotza mota asko daudela ohar-

tarazi zuen idazleak, eta gorputza bizirik egon arren, bat hilda egon daitekeela. «Agian hori da heriotzarik gogorrena, norberaren jabe ez izatea. Hilik bazaude bizitzan, agian erabakiren bat hartu behar da. Eta erabaki hori alde zuzenetik hartuta dagoenez, orain konplizeko momentua da. Beraz, bikote honek egingo du ibilbide bat agur esan arte». Albumak agertzen duen heriotza mota «tabu» bat dela, baina existitzen denaz «ahalik eta naturaltasun handienaz» hitz egin behar dela uste du.

Liburuko elementuak aletzean, txantxangorriak aipatu zituen Larreategik, bere senarrak maite zuen abesti bati erreferentzia egiten diotenak. Duela bost urte galdu zuen senarra idazleak, eta ordutik beste hainbat heriotza bizi izan ditu hurbilean. Norbere heriotza nolako izango den pentsatzek beldurra ematen diola aitortu zuen, eta gogoeta horietatik sortu zuela istorioa, «beldurrei buruz hitz egitean, agian, txikiagok egiten direlako».

Amenabarren irudiekin «zortetik handiena» izan duela uste du Larreategik, «bete-bete» asmatu duelakoan. «Lasaiak dira, soseguzkoak; liburuan ez da urduritasunik ikusten, sosegua baizik, eta horrela behar du». Amenabarrek, berriz, eskerrak eman

zizkion idazleari, «itzelezko bidea egiteko abiapuntu bat» jarri izanagatik. «Berezia da liburua, zeren gauza asko kontatzen ditu, baina beste asko kontatu gabe uzten ditu. Eta hori zen beste erronka, kontatzen ez duenaren interpretazioa egitea». Hala, iraganarekiko zama bat duen adineko andrè bat irudikatu zuen berak, eta kaiola bat jarri zion bizkarrean; bertan sartu zuen bigarren pertsonaia: txoria. Istoriok kokaleku duen basoa, berriz, kontatzen denaren arabera aldatuz doa.

'DUMITRU BILUZIK'

Koldo Izagirrek 2014. urtean aurkeztu zuen Dumitru pertsonaia, gazteentzako izen bereko eleberrian. Sei urte geroago, berriz heldu dio gazte euskaldun-errumaniarraren kezak, ezinegonak eta gogoetak garatzeari, *Dumitru biluzik* nobelan oraingoan. Eta Dumitruen eskutik izango du horien berri irakurleak, lehen pertsonan mintzo baita narrazioa. Hautu hori egiteak arriskuak hartzea ekar dezakeela jakitun, nor-tasun bat eraiki dio idazleak, jarri eta pentsakizunetan ez ezik, hizkeran ere sumatzen zaiona.

Dumitruen egunerokoa da liburuan irakurleak topatuko duena. «Gurea ez den eguneroko pribatu bat irakurtzea inoren intimi-

tatean sartzea da. Kasu honetan, ordea, egunerokoaren jabeak baimena eman digu bere sekretuetan kuxkuxeatzeko eta biluzik ikusteko», azaldu zuen Izagirrek. Txatalka, Dumitruen pasadizoiak, gogoetak, iritziak, autofikzioak eta beste joango dira aletzen; haren barne intrigak –euskaltasuna, errumaniartasuna, lagun-tasuna, maitasuna...– eta agerikoak –eskolan, etxean edo hirian gertatzen direnak– agertuko dira.

Istoriok ez dutela «jarraitutasun narraitiborik» zehaztu zuen Izagirrek, narrazioak jauzi egiten duela pentsamendutik gertaerara, oroitzapenetik elkarriketara, egungotik iraganera, bizitutakotik asmatutakora. Baina liburuan aurrera egin ahala, «irakurmer-nak hezurdura bat» eraikiko duela azaldu zuen. «Igarriko diogu egileak nobela arrunt bat hartu eta puskatan desegin duela». Ez dela estetika hutsa. Izan ere, haren ustez, jarraitutasun ezberdinak egon litezke –Dumitruen kasuan, ezinegonarena, jakin nahia-rena, askatasun premiarena, sentimenduena–, eta horien «ixiri-kordak kontakizun aniztu bat, koral bat osa lezake, zatiaz interresgarriagoa eta aberasgarriagoa kontaketa laua baino».

ALTZOKO HANDIA ETA KUTIXI, AZKEN BI LIBURUETAN

Altzoko Handia eta Kutixi protagonista dituen sei albumeko bilduma ixten duten bi liburuk ere aurkeztu zituzten egileek: *Altzoko Handia eta Kutixiren bekaitza*; eta *Altzoko Handia eta Kutixiren mehatxua*. Aurreko lanetan bezala, Izagirrek jarri dizkie hitzak istorioei, eta Irrimarra bikoteak –Irene Iruretak eta Karmele Gorroño–, berriz, irudiak.

Bilduma izateak hasieratik eragin zuen koloreen hautaketan, liburu bakoitzean «giro bat» sortu nahi zutelako, Gorroñoren hitzetan. Aurreko lanetako ildoari jarraitu diote ilustrazioetan, tenperaz eta eskuz egin ohi dituztenak, eta pertsonaien izaerekin eta tamainekin jolasean jarraitu dute.

Elkarlanean aritzeko prozesua oso interesgarria izan dela nabarmendu zuten hala Gorroño nola Izagirrek. Idazleak behin-behineko testu bat eta giro bat eman ohi zuela azaldu zuen ilustratzaileak, haien irudien gainean testuak aldatuz joaten zela gero, eta irudiak moldatuz haiek. Gorroño: «Oso interesgarria da, eta neketsua, aldi berean, denboran luzatzen delako eta aldatzen zoazelako etengabe. Baina aukera ematen du agian inoiz egingo ez zenituzkeen gauzak, ideiak edo irudiak egiteko».

MARIASUN LANDA
Txikitikunaren handitasuna

19:00 Azaroak 11
Patxi Zubizarreta
Juan Cruz Igerabide

Azaroak 12
Ibon Egaña
Marijo Olaziregi

Azaroak 16
Mariasun Landa

Bilbo Zaharra
EUSKALTZAHARRA

forum@bilbozaharra.eus

Euskaltzaindiaren egoitzan.
Bilboko Plaza Barrian

Forum